

Asisko gutuna

2013ko Azaroa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

61. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Buscar cada día la relación personal con Dios es buscar con cuidado momentos, lugares, ocasiones que nos ayuden a ponernos en su presencia. Dicho de otro modo, buscar estar a solas con Él, sin nada que nos distraiga, nada que nos inquiete o nos ocupe la oración. Y no vale decir que no tenemos tiempo, ni espacio ni... Si nos basta con el espacio y el tiempo de santiguarnos: “En el nombre del Padre, del Hijo y del Espíritu Santo”. A partir de ahí lo que queramos...

Gogoetarako gaia

Gure bakardadea

Badirudi inguraturik bizi garela jendez, familiaz, auzokoez, lankideez, adiskideez eta abar. Hala ere bakarrik gara jaiotzen, bizitzen eta hiltzen.

Jendez inguraturik garelarik ere, zenbat bakardade gure gizartean! Ikusten eta agurtzen dugu elkar, baina ez dugu inplikatu nahi besteen bizitzan, bakarrik uzten ditugu.

Sarritan gogaitu ere egiten gaitu norbaitek gure bizitzan sudurra sartzeak.

Eta bakardadea hor dugu beti gure zain. Batzuetan gorabeherek ezarrita datorkigu: pertsona maitteak galtzeak, gaixotasunek, zehardadeak, gaizki ulertuek eta abarrek. Eta bakardadeak adoregabetu egiten bagaitu ere onartu beharrean gertatzen gara; izan ere atea zabaltzen ez badiogu, geldi gaitzke geure baitako tristura eta auto-gupidaren sarean bilduta.

Beste batzuetan gu geu goaz bakardadearen bila, geure harat-honatak gelditu eta geure barnera begiratzeko. Baina orduan ere ihesari emateko gogoia datorkigu, bakardadeak izutu egiten gaituelako. Beldurrez gara geure benetako niarekin topo

egiteko, hain ezezaguna zaigun eta konfiantza galarazten digun eta gustatzen ez zaigun “ego” horrekin aurkitzeko. Behar-beharrezkoa zaigu geure miseriak, mugak eta kontraesanak ... onartzea, eta horiekin bakardadean bakarrik egiten dugu topo.

Bakardadea gerta daiteke sana geure kabuz eta libreki onartzen badugu, min ematen badigu ere.

Bakardadea onartzen dugunean konturatzen gara, hura gabe agian ez genuela sekulan Jainkoaren maitasunaren aurkikuntza egingo.

Gure gizartean deitzen gaitu Jainkoak banan-banan geure izenez eta ematen digu bere mintzoa. Jendez, zarataz eta gauzez inguraturik gabiltzanean ezin ditugu Jainkoak esan nahi dizkigun hitzak entzun, nahiz eta egunero berarekin harremanean jarri nahi izan.

Kristauarentzat bakardadea da Jainkoarekin aurkitzeko benetako tokia. Horregatik esaten dugu geure bakardadea ez dela bakartia, Jainkoa baitago bertan.

Ebanjelioko pasartea: Mt 6,5-6

Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala: gogoko dute sinagoga eta plazetan zutik otoitz egitea, jendearen agerian. Benetan diotsuet: Hartua dute beren ordaina.

Zu, ordea, otoitz egiteko, sar zaitetz zeure gelan, itxi atea eta egin otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari, eta ezkutukoa ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Frantziskok, Jainkoaren gizonak, ikasia zuen bere interesez ez arduratzen, besteen salbaziorako lagun-garri zela ikusten zuenaz baizik. Baina gauza guztien gainetik Kristorekin egotea zuen irrika... Horregatik, bakarlekuak aukeratzen zituen sarri, bere gogoaz guztiz Jainkoagana zuzentzeko; hala ere, une egokia zela irizten zionean, ez zen nagi lagun hurkoen arazoetan sartzeko eta haien salbazioaren alde saiatzeko. Otoitza zuen beti bere portu guztiz segurua; ez une bateko otoitza, hutsala eta handiustekoa, astiro egina baizik, debozioz bete, apala eta baketsua ... Gaez eliza abandonatu eta leku bakartietara joaten zen bakarrik otoitz egitera; horrela, Jainkoaren graziaren babesaz, espirituko beldur eta larrialdi asko gainditu zuen.” 1 Zel 71).

Frantziskok sentitu zuen bakardadea eta hark ere beharrezkoak izan zituen bakarraldiak. Bakarlekuak bilatzen zituen; ez leku hutsak, ez besteez axolagabetzeko aldiak edota bere interesez arduratzekoak; Kristorekin egotekoak baizik besterik gabe, bakez eta apaltasunez beteriko otoitz betean. Frantziskok beharrezkoak izan zituen bakarraldiak, haietan Kristorekin bakarrean egonez, bere bakardadean konpainian sentitzeko eta bere ahulezia, beldur eta larrialdietan sostengua aurkitzeko.

Otoitza

Gaua hain garbia den une honetan,
eta zu besterik inor ez dagoenean,
esadazu nor zaren.

Esadazu nor zaren eta zergatik zatozkidan,
zergatik jaisten zaren premian naizen honengana
eta zergatik zoazkidan zeure izena esan gabe.
Esadazu nor zaren, zuk elur gainean zabiltzan
horrek,
izarrak ukitzean ederrez distirarazten dituzun
horrek;
munduari hain eztiki eragiten diozun horrek,
hain eztiki, ze bihotzak gainez egingo didala
dirudien.

Esadazu nor zaren, argi ezazu nor zaren;
esadazu halaber nor naizen
eta zergatik den gizaki izatearen tristura hau;
esadazu bihotza zugana jasotzen dudan honetan
zuk, elur gainean zabiltzan horrek.

Esadazu orain, nire izateak libertatean dar-dar
dagienean,
orain, ene bihotzak bor-bor inoiz ez bezala dei-
tzen zaituenean.
Eutsi niri zeure esku artean,
eutsi niri neure tristuran,
zuk, elur gainean zabiltzan horrek.

Liturgiako goratarrea

Gutuneko azken hitzak

"Jainkoarengan bizi denak bakardadean sentitzen du bakardade gutxien" (Guillermo de Saint Thierry)

2013ko azaroko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate azaroko erreferentzia guztiak:

1 Mt 5, 1-12	8 Lk 16, 1-8	15 Lk 17,26-37	22 Lk 19, 45-48	29 Lk 21, 29-33
2 Jn 11, 17-27	9 Jn 2, 13-22	16 Lk 18, 1-8	23 Lk 20, 27-40	30 Mt 4, 18-22
3.Lk 19, 1-10	10 Lk 20, 27-38	17 Lk 21, 5-19	24 Lk 23, 35-43	31 Mt 24, 37-44
4 Lk 14, 12-14	11 Lk 17, 1-6	18 Lk 18, 35-43	25 Lk 21, 1-4	
5 Lk 14, 15-24	12 Lk 17, 7-10	19 Lk 19, 1-10	26 Lk 21, 5-11	
6 Lk 14, 25-33	13 Lk 17, 11-19	20 Lk 19, 11-28	27. Lk 21, 12-19	
7 Lk 15, 1-10	14 Lk 17, 20-25	21 Lk 19, 41-44	28 Lk 21, 20-28	

Azaroko Otoitza hilaren 28an izango da.

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96